

TRADIZIOA vs. BERDINATASUNA

ALARDEA-TZERIK BAI?



Leire Imaz Zubiaur
EHUko Zuzenbide Fakultatea
Leioa, 2014ko uztaila

**IRAKASKUNTZA BERRITZEKO EUSKARRI
DIDAKTIKOA:**
***ROL JOKOAREN ERABILPENA ZUZENBIDE
ZIBILAREN EREMUAN***

AURKIBIDEA

I. GAZKAREN ESZENATOKIA

Zer da Hondarribiko Alardea?..... (4)

Emakumeen parte hartza Alardean: gatazkaren jatorria..... (6)

II. GATAZAREN MAPA

Makro dimentsioa..... (12)

Mikro dimentsoia..... (19)

III. SIMULAZIOA

Eszenatokia..... (27)

Rolak..... (28)

Argibideak..... (32)

Dinamika..... (35)

Meta-analisia..... (36)

I. GATAZKAREN ESZENATOKIA

Zer da Hondarribiko Alardea?

Conde Printzearen agindupean, orduan Frantziako Errege zen Luis XIII-aren tropek Hondarribia inguratu zuten 1638ko uztailaren 1ean. Setioaren lehenengo egunetan, hondarribiarrek, Elizan bildurik, Guadalupeko Birjinari zin egin zioten bere santutegira prozesioan urtero joango zirela eskertzera setiotik askatzen bazituen. Hiriak 69 egun iraun zituen setioan eta irabazle bukatu zuen 1638ko irailaren 7an. Geroztik, herritarrek egin zuten promesari jarraiki, hondarribiarrek urtero euren Botoa betetzen dute, data horretan, Guadalupeko Santutegira hiri-erlijio prozesio bat eginez: Alardea. Desfile hau Hondarribian urtero irailaren 8an ospatzen da, 1639. urtetik.

Izatez, ‘alarde’ hitzaren jatorria Ipar Afrikako ohitura militarretan dago eta, etimologikoki, ‘ard’ sustrai arabiarretik dator, ‘tropen ikuskatzea’ esanahia duena, alegia. Armen alardeak Erdi Arotik datozen. Historiaren etapa honetan eskolta armatuak osatu ziren ornamentu berezi gisa hiri-erlijio taxuzko ospakizun publikoetan. Milizia armatu hauen funtzioa, ia Europa osoan, herri-jaiak ondratzea zen, San Juan Bautista, San Pedro edo Corpus-Christi bezalakoak, hain zuzen.

Erdi Arotik, Euskal Herrian, lurralte bakoitzean aplikagarri ziren foruen arabera, herri orok zeukan bere burua militarki antolatzeko eskubidea eta betebeharra. Gizezko guztiekin, 18 urtetik 60 urtera, foru miliziak osatzen zituzten. Hasieratik, Gipuzkoako hiribilduek euren konpainiak eratu zituzten: euren arduradun gorena alkatea zen, ‘Gudaroko kapitaina’ deitzen ziotelarik. Konpainia guzti hauek Foru Aldundiak koordinatu egiten zituen: honek ‘Gudaroko Diputazioa’ osatzen zuen eta, konpainia guztiengagusi izan zedin, ‘Probintziako Koronela’ izendatzen zuen. Probintzia defendatu behar zenean, gipuzkoar guztiak joaten ziren. Ordea, Gaztelako erregeak deitzen bazituen, probintziatik irten behar izanez gero, errege soldatapean joaten ziren gipuzkoarrak.



Hasieran, erasorako arma zuriak erabiltzen zituzten alardeetan (ezpatak, sastakaiaik, baleztak...), baita defentsarako armak ere (erredolak, burubabesak, alabardak...). Baino gudarako tresneria azkar Joan zen garatzen eta gipuzkoarrek gertutik jarraitu zituzten aldaketok. Hala, XVI. Menderako bazitzuten, jada, arkabuzak eta beste su-armak. Konpainiak – Kapitain eta Kabo batek zuzenduak- erdibideko karguak sortu zituzten, Sarjentua eta Alferiza bezala, guda egiteko era berriei jarraiki. Astamakilen eta arkabuzen arteko koordinaziok mugimendu bateratuak eta erritmikoak eskatzen zituen, punteria onaz gain. Abilezia guzti hauek Alardeen edo Armen Ikuskatze hauen bitartez jasotzen zituzten soldaduek garai hartan. Soldadu hobeak eta abilagoak sortzeko bitartekoak ziren. Euren lurraldea zein Gaztelako erreinuarena defendatzeko militarki prestatuak egon behar zuten soldaduek eta euren armak prest eduki. Horregatik, aldiro, eta data zehatzetan, 18-60 urte bitarteko gizonezkoak behartuak zeuden Alarde deialdietara joatera euren armekin, hauek erabiltzen ikasteko Alardean parte hartuz.

Hondarribian, 1638ko setioaz geroztik, kontzejuak erabaki zuen, Guadalupeko Santutegirako prozesioaz, mezaz eta jaiez gain, data berean ‘Armen Erakustaldi Orokorra’ egitea. Erakustaldi honek Guadalupeko Birjina ondratzeko erlijio-prozesioa laguntzen zuen. Ikuskatzea burutu ondoren, milizia osoa Elizara joaten zen prozesioan eta mezara zihozzen beste herritarren ondoan , 1638an egindako bota betez.



Emakumezkoen parte hartza Alardean: gatazkaren jatorria

Mendetan zehar, Alardea antolatzea eta desfilatzea Hondarribiko gizonezkoen esku egon da. Desfilearen buruan **Hatxeroak** daude. Hainbeste unitate eta konpainia bezala, ezin da zehazki jakin zein urtetan hasi ziren Hatxeroak Alardean parte hartzen. Hatxeroak beti lehenengoak dira alardean, beraien herramintekin bidea irekitzen. Antzina, armak eramatzen zituzten herramintekin batera eta deskargak egiten zituzten beste konpainiek bezala. Unitate hau zuzentzen duen irudia Hatxeroen Kboa da. Hatxeroen atzetik, **Tanborrada** eta **Alardeko Musika Banda** datoz. Euren atzetik, **Burgomaestrea**, agintari gorena, bere **Laguntzaileekin**. Hauen ondoren, **Zalditeria** eta **Batailoiko Komandantea**, nahiz eta azken honek ez duen toki finko bat desfilatzeko: **Infanteria konpainien** artean dihardu. Konpainia hauek dira, hain zuzen ere, Batailoaren zati handiena osatzen dutena. Hamasei dira eta Hondarribiko auzo ezberdinak ordezkatzen dituzte [Jaizubia, Arkoll, Akartegi, Pueblo, Montaña, Semisarga, Kosta, Gora Ama Guadalupekoa, Ama Guadalupekoa, Gora Gazteak, Beti Gazte, Gora Arrantzale Gazteak, Mista, Medelu, Olearso, Done Pedro Itsas Gizonen Kofradia]. Hauen atzetik **Artilleriako Bateriak** desfilatzen du eta, azkenik, Eliza **Kabildoak**.

Alarde tradizional honetan, emakumeak bakarrik parte hartzen du Kantinera bezala. Kantinera da, Alardea osatzen dutenen iritziz, Alardeko figurarik garrantzitsuenetako bat. Konpainia bakoitzean bakarra da eta toki nabarmen batean desfilatzen du.

Kantinera maiatzaren lehenengo hamabostaldian aukeratu egiten da, hautagai guztien arteko zozketa eginez. Lehenengo zalditeria konpainiari dagokiona. Hurrengo egunetan, beste konpainietakoak. Hautagaien deialdia apirilaren erdialdean ateratzen da. Egunkarietan agertzen dira edota web orrialdeetan. Nahi dutenak aurkez daitezke, emakumezkoak badira. Eurek euren burua aurkez dezakete edo beste pertsona batek aurkezten ditu. Hautagai guztiak prest, aurreikusitako datan batu egiten dira konpainiako kideak (denak gizonezkoak) eta hautagaitza guztien artean aukeratu egiten dute urte horretako Alarderako konpainiako kantinera izango dena.

Momentu honetatik aurrera, **Kantineren Batzordea** lanean hasten da. Kantinerak izandakoek, agintari ohiak eta ‘kantineren beharrak oso ondo ezagutzen dituzten kantineren amek’ osatzen dute. Kantinerak izango direnei aholku ematen diete: arropak, osagarriak (banda, abanikoa, belarritakoak, eskularruak...), arropa-probak, botak, orrazkerak, posatuak... Antolatzaleek diote neskek ilusio handiarekin bizi izaten dituztela une hauek. Ohore bat dela Alardean kantinera izatea. Hala bizi dute neskek txikiak direnetik. Hala irakasten diete etxearen. Batzordeak komunikabideetako agerraldiak ere antolatzen ditu. Argazkiak egiten dizkiete eta zalantzakin lagundu. Batzuen aburuz, kantinerek bizi dutena Miss-ek bizi duten prozesuaren antzekoa da.







Kantinera eta eskopetera

«Era el 12 de febrero de 1874 cuando **Amalia Ansuategui**, que se había convertido en cantinera del Batallón de Auxiliares de Bilbao, ascendía hacia la fortificación de Mallona empujando con sus dos sobrinos el carrito de provisiones para la cantina, cuando vio aproximarse en la bruma del amanecer una columna carlista que quería tomar por sorpresa el baluarte. Doña Amalia era una mujer decidida. Hay que ser persona resuelta para regentar una cantina de batallón en guerra, por lo que dispuso que el menor de sus sobrinos alcanzase a la carrera el fuerte de Mallona para dar el aviso, mientras que ella empezaba a disparar su fusil, apoyada por el fuego de su otro sobrino, lo que facilitó que cundiese la alarma y los carlistas se retiraran. Y es que Amalia iba siempre bien armada, pues al carro de los licores no siempre lo intentaban atacar los carlistas, y el sentido de la justicia de la señora era tan simple como recto: el que no paga, no bebe» Eduardo Uriarte, El País, 2006

Baina, 1996an, emakume talde batek Alardean parte hartuko duela iragartzen du. Bai Hondarribian, bai Irunen. Eskopetera gisa desfilatu nahi dute, ez kantinera bezala. Herritarren berehalako erreakzioa oso bortitza eta proportziorik gabekoa da: erasoak, kaleratzeak, mehatxuak, zulatutako gurpilak, boikota euren negozioei, euren alde agertzen diren zinegotzien kontrako errepresalia politikoak....



Aterki eta plastiko beltzak Alarde tradizionalaren aldekoak estaliz Alarde Mistoak desfilatzen duen bitartean, aldarrikapen feministen kontra protesta eginez. Desfile mistoari iseka eginez, Mickey Mousen karetak.



Gauzak horrela, 1997ko ekainean Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiaren auto batek Alardearen antolatzaileak behartu egiten ditu, probisionalki, emakumeak jasoko dituen unitate batekin desfilatzera. Hondarribian, ehunka pertsonek ezinezko egiten dute Jaizkibel konpainia mistoa Alardean sartzea.

Halaber, 1998ko urtarrileko Justicia Auzitegi Nagusiak emandako bi epaik [15/98 (Hondarribia) eta 16/98 (Irun)] onartzen dute emakumezkoek eskubidea dutela gizonezkoekin berdintasunean Alardeetan parte hartzeko. Alarde tradizionala defendatzen dute herritar gehienek. Erasoak bortitzak dira Alarde mistoa osatzen duten emakumeen kontra: Lesbianak! ¡Bollerak! ¡Tortillerak! ¡Putak! eta ¡Maricones!. Euren diskursoa benetan adierazgarria da:

«Al principio eran las lesbianas del Bidasoa las que iniciaron las reivindicaciones de participación en el Alarde [...]. La Mafia Rosa trata de hacerse con el control y no es pura casualidad, porque les va a faltar tiempo para reivindicar lo que ellos consideran su espacio, porque no nos engañemos y recordemos que la sentencia basada en el artículo 14 de la Constitución obliga a la igualdad participativa sin diferencias de sexo. Esta sentencia también abre la puerta a los gays que enseguida van a reivindicar su derecho a salir de cantineras. Y lo cierto es que si se acepta a las mujeres como soldados por qué no se les va a aceptar a ellos como cantineras. Esta sentencia convierte automáticamente nuestro Alarde en un carnaval, en un insulto para la ciudad de Irun, en algo imperdonable y que no estamos dispuestos a aceptar. Ante semejante situación solo cabe una solución, la insumisión, la rebelión ante la estupidez, recibámosles a los carnabaleros con tomates el día de San Marcial. Cada irunés con 2 kilos de tomates maduros porque, ojo al parche, como abandonemos a nuestro Alarde, de aquí a tres años, los maricones van a denunciar otra vez al Ayuntamiento porque querrán salir de cantineras»

Momentu horretatik aurrera, erasoak eta judiziozko kondenak ugaritu egiten dira. Poliziaren kargak. Herriaren zatitzea bi bandotan. Justicia Auzitegi Nagusiaren 2002ko uztailaren 5eko epaiak ez du gatazka baretzerik lortzen. Epai honek adierazten du Iruneko Alarde tradizionalak bakarrik desfilatu dezakeela, erakunde pribatua den heinean. Ordea, Espainiako Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 13ko epaiak Hondarribiko emakumeen aldeko jarrera mantentzen du, Alardean gizonekin berdintasunean desfilatzeko eskubidea aitortzen baitie. Ildo beretik doa Espainiako Auzitegi Gorenaren 2002ko irailaren 19ko epaia, Iruneko Alardeari dagokionez.

Eremu ezberdinatik hedatzen hasten dira bi herri hauetako aldarrikapen feministen aldeko iritziak: Ararteko, Emakunde, EHuko irakasleak, epaileak, politikariak, kazetariak, erakundeak eta elkartek... Izatez, Eusko Legebiltzarren 2005ean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko Legea onartu egiten du. Espainiako Auzitegi Gorenaren 2007ko urtarrilaren 15eko epaiak, berriz, Alarde tradizionalak diskriminatzen ez duela adierazten du.

Irun eta Hondarribiko udaletxeek Alarde mistoari atea ireki egiten diete baina ez dute alarde bakarra eta bateratua inposatzen euren udaletan. Ez dute inposatzen emakumeen presentzia alardean. Bi ibilbide ezberdin, bi alarde ezberdinenzat: mistoa eta tradizionala. Bi bando, beraz:

1) ALARDE TRADIZIONALA: Defendatzen dute emakumeek bakarrik kantinera bezala desfila dezaketela. Eredu honek tradizioa errespetatzen duela argudiatzen dute, gehiengoak babesten duten eredu dela eta ez duela diskriminatzen.

2) ALARDE MISTOA: Justizian, demokrazian eta berdintasunean oinarritura, aldarrikatzen dute alarde bakarra eta bateratua, norberak nahi duen moduan parte hartza baimentzen duena. Jai herriko eta publikoa defendatzen dute, udaletxeak antolatutakoa, zeinean emakumeek eskopetera bezala ere desfila dezaketen. Alardea ez dadila izan ospakizun pribatua, zeinean pertsona gutxi batzuk erabakitzetan duten nor sartzen den eta nor ez.

II. GATAZKAREN MAPA

Makro dimentsioa

Irun eta Hondarribiko emakume talde batek 1996an iragartzen dute bi herrietako alardeetan parte hartuko dutela, eskopeteraz jantziak. Ordu arte alardeak milaka gizonezkok osatzen zituzten, herriko auzo ezberdinak ordezkatuz eta emakume bat auzo edo konpainia bakoitzeko kantinera hautatuz.

Paraleloki, bi urte geroago, 1998an, Nuria Martinez Alcoi herriko lehenengo emakume festera bilakatzen da, Alcoiko Mairuen eta Kristauen

jaian¹. Alcoi-koa, Irunekoa zein Hondarribikoa, **muga magikoak** gainditu zitzuten ekimenak izan ziren, Pierre BORDIEUren iritziz. Muga sinboliko horiek jenero bakoitza esleitu zitzaison tokian kokatzen zuten, bai gizartearren ordenan, baita sinbolikoan ere. Marjina sinboliko hori haustea gatazkak ekarri zituen jai hauen inguruan eta, egun, 15-17 urte beranduago, oraindik herri haietan bi zatitan banatzen dituzte: zati bat, herritarren gehiengoak osatua, tradizioaren defendatzalea da, tradizioa bera aldaezina dela ulertzten duena; bigarrena, ordea, erritoen egituretan aldaketa bat egitearen aldekoa da, emakumezkoen parte hartzea berdintasunez eman dadin bermatzeko.

Hiru herrietan (Irun, Hondarribi eta Alcoi) berdintasunaren defensa emakumezkoen taldeek egiten dute: Alardeetan berdintasunez parte hartzearen eskaera Bidasoako eskualdeko talde feminista batek eragiten zuen bitartean (*Bidasoaldeko Emakumeak*), Alcoi-n *Fonèvol* elkartea *ad hoc* eratu zen eta herriko komunikabideetan aurkeztu zen 2003ko

¹ Hala azaltzen dute bertako arduradun eta kazetariek:

“La de Moros y Cristianos de Alcoy (Alicante) es una fiesta popular que incluye la representación de la lucha entre dos bandos: musulmán y cristiano. Tienen su origen en la Batalla de Alcoy, que tuvo lugar en 1276 a las puertas de la ciudad, y se cree que enfrentó a los habitantes de Alcoy con las tropas del caudillo musulmán Alazraq. Cuenta la leyenda que en el momento clave de la batalla apareció la figura de San Jorge a lomos de un caballo sobre las murallas de la ciudad y que su figura decidió el resultado de la batalla. Por esto, San Jorge fue nombrado patrón de estas fiestas y se celebran en su honor el día 23 de abril. Las organiza la Asociación de San Jorge, desde al menos el año 1883, a tenor de la documentación. Numerosos pueblos del levante español celebran fiestas de Moros y Cristianos pero las de Alcoy alcanzan, desde el último tercio del siglo XX, una especial singularidad por la riqueza y espectacularidad de sus boatos, que las ha llevado a ser declaradas de ‘interés turístico internacional’ el 18 de enero de 1980, si bien ya era fiesta de *Interés Turístico* desde 1965.

Tras promulgarse la Constitución Española de 1978, las mujeres alcyanas manifestaron inquietudes participativas en el ámbito festivo local, ya que se habían adquirido derechos como ciudadanas hasta entonces vetados. Dichas inquietudes fueron desplazadas por los organizadores a los ‘ballets’. Mediante danzas las mujeres embellecen el desfile de las representaciones rituales de los ejércitos marchando a la batalla. Mientras los hombres *festers* participan activamente en los eventos festivos durante todo el año, la intervención de las mujeres se encuentra limitada a los tres días oficiales de la festividad, o, como se conoce en la jerga local, durante la Trilogía Festera, y apenas algunos actos. Los papeles desempeñados por las mujeres son totalmente secundarios y ornamentales. El lunes 16 de junio de 1997, la ciudad amanecía con una noticia que cambiaría el curso de la historia festiva alcyanana. La primera plana del periódico local anunciaba la incorporación de la primera mujer en las festividades como *festera*: Nuria Martínez”.

martxoan. Talde feminista hauek aurrera eraman dituzten aldaketa estrategiak kokatu dira, batez ere, euren gizarteetako eremu publikoan, erritoetan emakumeek bizi duten egoera errealaaz jabetzeko kontzientziazio kanpainak direla medio. Baino, batzuetan, giza errekonozimendua lortzeko eta euren aldarrikapena sendotzeko, bide judzialera jo izan dute.

Nahiz eta jai ospakizunek naturaltasunak eta bat-batekotasunak gidatuak diruditen, alaitasuna, gozamena eta dibertsioa nagusi izanik, errealtitatea ez da horrelakoa. Espazio horiek ere gizarte bakoitzean menderatzaileak diren aktoreak dituzte agintari, gehienetan gizonetakoak. Hauek bere gain hartzen dute ‘interes orokoren ordezkaritza’ (Dolores JULIANO), erritoak gidatzen dituzten kodeak sortuz, isilbidezkoak zein espresuak. Kodifikazio hauek une historiko jakin batzuetan eratzen dira eta jenero interesen oinarrian; baita klasea, etnia eta sexu orientazioari erreparatuz.

Ordea, emakumeek aprobetxatu dituzte espazio hauek –literatura antropologikoan eta soziologikoan, ezarritako arauak urratzeko espazioak konsideratu izan direnak-, euren aldarrikapenak eta kezkak adierazteko. Gutxinaka, espazioak irabazten joan dira. Batzuetan, ospakizunetan berdintasuna egotea lortu dute. Spainiako Estatuan emakume asko dago jai-tradizio androzentrikoak kuestionatzen. Margaret BULLEN antropologoak erakusten du, Irun eta Hondarribiko alardeei buruzko bere ikerketetan (2000, 2003 eta 2006), emakume batzuk gizonetakoekin berdintasunean desfilean parte hartu nahi zutela iragarri zutenean eragin zuten gatazka. Estatuaren hegoaldean, 2011ko Aste Santua historikoa izan zen: Andaluziako hiriburu guztietako prozesioetan nazarenak presente egon ziren. Ordu arte, Sevillako hiru ermandadetan emakumezkoek debekatua zuten parte hartzea beren sexuagatik. Alcoi-ko kasuan, Nuria Martinez bilakatu zen, 1998an, herri erritoko lehenengo emakumezko festera. Une hartatik, Alcoi-ko gizartea bi bandotan banatua dago, gatazka baten murgildua: lehenengo banda, komunitatearen gehiengoak babestua eta jai-batzordeen oniritzia daukana, jaien tradizioa eta ortodoxia defendatzen duena; bigarrena, jai-egituretan eta horietan agertzen diren jenero ereduetan aldaketa bat defendatzen duena, erritoetan emakumezkoen parte hartze osoa aldarrikatuz, berdintasunaren lelopean (Veronica GISBERT, 2011).

Emakume hauek euren herrietako ordena hori apurtzea erabaki zuten arte, ez zen beharrezkoa jaietan emakumezkoek parte hartzea debekatua

zutela adierazten zuen araurik: muga magikoa zegoen ezarria, oztopo sinboliko bat, inork gurutzatu edo gainditu gabe. Bazegoen marra bat, errito edo jai horretan jenero bakoitzak bete behar zuen funtzioa adierazten zuena. Horregatik, Alcoi-n, hiru emakumek lortu zuten 1998an bertan (Nuria Martínezek lehenengo emakume festera izatea lortu zuen urtean), jaien antolakuntza batzordean sartzea. Legeria eskuan, ezin zitzaien debekatu bertan sartzea. Baino, ordu arte, emakume batek ere ez zuen saiatu muga sinboliko hori gainditzen. Baino, momentu horretatik aurrera, jai batzordeetan kide berrien sarrera erregulatzea erabaki zuten antolatzaillek, estatutuak aldatuz. Neurri berri hauekin, elkartea edo erakunde hauetan parte hartu nahi zuten pertsonek kide ezberdinen babesia behar zuten eta bazideen bozketa jasan. Geroztik, emakume gutxik lortu dute baziidea gisa jai instituzioetan sartzea. Gaur egun, Alcoi-n, 7000 gizonek eta 10 emakumek parte hartzen dute euren jai nagusia antolatzen. Erreakzioa berbera da Hondarribiko Alarde tradizionalean. Euren web orrialdean argi hitz egiten dute 1997an egoerak bultzatuta hartu zuten erabakiaz. Elkarte bat izatetik (Espainiako Konstituzioaren mende dagoena) fundazio pribatu izatera pasa ziren:

«Como consecuencia de los graves acontecimientos que pusieron en riesgo la celebración del Alarde en 1997, el Pueblo de Hondarribia, reaccionó unánimemente, organizándose en torno a un objetivo fundamental, “Proteger el Alarde”; y este mensaje claro y absolutamente mayoritario en la población hondarribiarra, sirvió para dar los primeros pasos para crear un marco legítimo y jurídico-legal para poder ejercitar los derechos de representación formal y legal en la organización del Alarde»

Horregatik, bi jaietako eremu publikoan emakumeek espazio gehiago izateko borrokan diharduten elkarteak –*Jaizkibel, Bidasoako emakumeak, Fonevol-* **ZUBI-ESPAZIOAK** deitu izan dira; bi muturren artean kokatzen direlako. Jai horietan emakumeek betetzen dituzten tradizionko tokien (kantinerak, dantzariak...) eta erritoak berdintasunez tratatzen dituzten kontzepzioen artean kokatzen direlako, alegia. Azken kontzepzio horizontal hau posible da. Hain zuen ere, bi jaiak ASMATUTAKO TRADIZIOAK konsideratzen direlako (Hobsbawm y Ranger, 1988): «...una serie de prácticas, normalmente gobernadas por unas reglas aceptadas explícitamente o tácitamente, y un ritual de naturaleza simbólica que intentan inculcar valores y normas de comportamiento por repetición, lo que significa, automáticamente, continuidad con el pasado». Denboran zehar asmakizunez asmakizun sortu diren erritoak bezala. Ez dira sormen

arbitrarioak, bere jeneroak markatutako interes eta pentsamenduek gidatuak ekiten duten pertsonek eratutakoak baizik, bizi duten une historikoaren inguruabarrek baldintzatuta².

Gizarte *jenero sistema asimétrico* baten oinarrian dago egituratua, eta gizonen eta emakumeen bizitza sistema horrek baldintzatzen du. Hau da, gizakien arteko harremanak faktore ezberdinek baldintzatzen dituzte: formalak (gobernuak, instituzioak...) eta ez formalak (familia, lagunak, kuadrila, komunikabideak...). Guztiak daude, etengabe, emakumezkoak eta gizonezkoak nola izan behar diren definitzen: nola jantzi, nola portatu, zein rol jokatu... egunerokoan eta plano sinbolikoan ere (non sartzen diren ideiak, baloreak, ideologiak...). Aldaketa bat probokatu nahi bada eguneroko planoa, plano sinbolikoan ere eman behar da aldaketa hori: askotan egunerokoaren eremuan aldaketa ematen da baina ez plano sinbolikoan. Hau da Alardeen kasua, toki sakratuan baitaude kokatuak, burbuila baten barruan. Puntu honetan, tradizioekin talka egiten dugu: nola sortzen diren, historiari zein balio ematen zaion eta, honekin batera, emozioak. Txikitatik tradizio hauen artean hazten gara, familiarekin eta

²“En el caso de la Fiesta de Moros y Cristianos de Alcoy, ésta se consolida durante el siglo XVIII, en pleno proceso de industrialización. La Revolución Industrial, y, en consecuencia, la entrada en la modernidad, tuvo un gran impacto en la sociedad alcoyana. Fue una época de grandes transformaciones sociales, económicas y políticas consecuencia de un crecimiento industrial descontrolado, que además de riqueza y prestigio a la ciudad, originó rebeliones obreras demandando mejoras laborales y sociales. Con el proceso de industrialización emerge una nueva clase social, la burguesía. Ésta al ostentar el poder económico se erige como la hacedora de los nuevos valores sociales y de género alcoyanos. Durante la industrialización los hombres formaban asociaciones en el espacio público y se reunían. Estos espacios masculinos de sociabilidad se formaron en Alcoy en torno a las festividades y se les conoce con el nombre de *filaes*. En el seno de estas organizaciones se fomentan los sentimientos de hermandad, la relación entre los iguales. El hecho de pertenecer a una *filà*, iguala a los hombres a un mismo estatus, convirtiéndose así en asociaciones supraclásistas y armonicistas. Estas asociaciones disponen de autonomía festera, administrativa y económica pero no tienen personalidad jurídica propia. Por esta razón están integradas dentro de la Asociación de San Jorge, una entidad de utilidad pública sobre la que el Ayuntamiento de la ciudad delega la organización de las festividades alcoyanas. La ASJ es el ápice en la pirámide del prestigio de las festividades alcoyanas. En su Asamblea General, compuesta únicamente por hombres, como dicta el artículo 10 de sus estatutos, se crean todas las codificaciones (implícitas o explícitas) que rigen en las festividades alcoyanas, desde la estructura de organización de la festividad hasta los roles que cada persona debe representar en ellas. Pero no solo crean y deciden las codificaciones sino que además las interpretan, otorgándose a sí mismos unas herramientas de poder muy potentes dentro de la sociedad alcoyana. **La fiesta es un motor de creación ideológica, de vehiculización y transmisión de valores y creencias, y sustenta las estructuras de prestigio**” (Verónica GISBERT, 2011).

arbasoekin erlazionaturik daude eta horrela sortzen da burbuila kolektibo hori, hainbeste indar duen hori (Margaret BULLEN, 2012).

Irunen eta Hondarribian Alardea oso garrantzitsua da eta gero eta zailagoa da aldatzea: alardea espazio sinbolikoaren erdi-erdian dago eta, halaber, jenero sistema baten erdian. Piezak mugitzen dira baina makinariak erresistentzia egiten du. Imagina dezagun erloju baten makinaria dugula, ondo funtzionatzen duena, pieza guztiekin. Giltza ingeles bat sartzen badugu makina txiki bat geldi dezakegu agian, baina, hain sistema konplexua izanik, beste pieza guzietan ez du ia efekturik izango eta hauek bere bidea jarraituko dute. Zer da Irunen eta Hondarribian gertatzen ari dena, ba? Pentsatu behar da familia oso lotua dagoela tradizioarekin eta, euskal gizartean, familia oso garrantzitsua dela. Alde batetik, euskal kultura babestu behar da eta, bestetik, agian familiari aurre egin behar zaio, egoerak hala eskatzen badu. Horrek ez du esan nahi euskal kulturaren aurkako jarrera hartu behar denik, baizik eta tradizioak bizirik daudela eta historian zehar aldatu direla, gizartearekin batera. Ez da ezer ere galdu behar emakumeari sartzen uzteagatik. Berdintasuna lortzeko beharrezko da gizonezkoek eta emakumezkoek elkarrekin gauzak egitea, elkarrekin eraikitza. Euskal kultura ez dago gaizki, berez, baina aldatu behar dira aspektu batzuk, gizarteko beste batzuekin gertatzen den bezala (Margaret BULLEN).

Hau izan da **Antzuolako Alardearen** kasua: herri baten borondatea tradizio bat aldatzeko. Oso esperientzia positiboa eta aberasgarria. Etorkizunari aurre egitea denok elkarrekin. Gazteek ez zuten parte hartu nahi, Mairuren figura arrazistatzat hartua izan zen eta kezkagarria zen alardearen taxu militarra.

Antzina, soldaduska egiten zuten gizonek baimen berezia zuten herrira etortzeko eta desfilean parte hartzeko, baina, derrigorrezko soldaduska desagertu zenean, herriko gazteek ez zuten euren burua Alardean parte hartzen ikusten. Beste alde batetik, jaia hobeto ezagutzeko eta babesteko nahia ere bazegoen. Ikerketa bat egin zen, orduan, herriko jendearekin:

emaitzak aztertuta eta txostenetan eskuan, herriak bera, batzordeetan bildurik, zer egin erabaki zuen. Herritarrek ulertu zuten tradizioa ez dela jarraitu behar dagoen bezala; historia bera asmatua dela; ez dela hitzez hitz jarraitu beharreko biblia; historia sortzen dela, idazten dela; ez dagoela egi bakarra, interpretazio bat baizik. Esaten da, Antzuolako Alardean agertzen den Mairuren figura Abderraman III dela, herriko batzuk Nafarroara joan zirela bere kontra borrokatzerena eta eurekin ekarri zutela herrira. Ikerketa burutu ostean ikusi zen hori ez zela posible, asmakizuna zela. Hau jakinik, jendea libre sentitu zen aldaketa egiteko, historiako beste momentu batzuetan ere aldatua izan zelako. Tradizio batzuk apurtu egin behar dira, jenero indarkeria bezala, adibidez; baina beste batzuk mantendu daitezke aldaketa batzuk eginez. Irun eta Hondarribiko Alarde tradizionalek sentitu dute emakumearen parte hartzearen alde daudenek euren jaia hondatu nahi izan dutela. Pentsatu dute feministek ez dutela Alardea maite eta hori ez da horrela. Herriko emakume askok bertan parte hartu nahi dute, baina berdintasunean. Kasu honetan, planteamendua ez da apurtzearen aldekoa izan, baina askok horrela ulertu nahi izan dute (Margaret BULLEN, 2012; Xabier KEREXETA eta Margaret BULLEN, 2007).





Mikro dimentsioa

Kasu honetan aplikagarria den **diskriminazioaren aurkako araudia** ugaria da. Plano formal batean, Zuzenbidearen kontrako diskriminazio oro dago debekatua, sexuaren arabera eragindakoa barne. Aldarrikatze eremuaren eta ordena kronologikoaren arabera bereiz ditzagun arauok:

- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (NBE, 1948)
- Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (Europako Kontseilua, 1950)
- Eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen Nazioarteko Ituna (NBE, 1966)
- Eskubide zibilen eta politikoen Nazioarteko Ituna (NBE, 1966)
- Emakumea diskriminatzeko forma guztiak ezabatzeko Hitzarmena (NBE, 1979)
- Emakumea diskriminatzeko forma guztiak ezabatzeko Hitzarmenaren protokolo fakultatiboa (NBE, 1999)
- Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Karta (UE, 2007)

Araudi marko honetan –nazioartekoa, erregionala eta komunitarioa– 1978ko Spainiako Konstituzioak berdintasunaren printzipio formala bere egiten du 14. artikuluan:

«Los españoles son iguales ante la Ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social»

Bere aldetik, Espainiako Konstituzioaren 9.2. artikuluak Botere Publikoei esleitzen die berdintasun printzipo hori zaintzeko betebeharra:

«Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas; remover los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social».

Euskal Autonomia Erkidegoaren planoan, 4/2005 Legeak, otsailaren 18koa, gizonen eta emakumeen berdintasunari buruzkoa, gehiago hurbiltzen gaitu:

Artículo 24. Asociaciones y organizaciones

(...)

